

Uztailaren 1ean
URTEAN ZEHARREKO 13. IGANDEA

Agurra

Aintza eta ospea zor diogu Jaunari! Bere bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedeak beti du berritu beharra, Jesusengana gerturatzen ziren askoren fedeak bezala. Jainkoaren Hitza dugu horretarako lagungarri bikaina, fedea probaldietan neurtzen dela ikusarazten diguna.

Damu-otoitza

Senideok: Jainkoaren hitza entzun eta gure salbamenaren oroigarria behar bezala ospatzeko, presta ditzagun gogo-bihotzak, Jaunaren errukia eskatuz.

—Jesus Jauna, Zu zara guretzat Aitarenganako bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zu zara gure ilunpeak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zu zara mundua berritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko Jauna,
zure seme-alabatzat hartuz, argiaren seme-alaba egin gaituzu;
iguzu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunbeak,
eta zure egiaren argi ederrean bizi gaitezela beti.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak bizitzeko sortu gintuen. Jesusen egintza guztiak ere bizitzaren aldekoak izan ziren. Poztu egiten da Jauna gauza guztien garapen ona ikustean. Horregatik, heriotzak ez du azken hitza, baizik eta bizia ateratzen da garaile.

Lehenengo irakurgaia (*Jak* 1, 13-15; 2, 23-25)

Jakinduriaren liburutik

Ez zuen Jaungoikoak egin heriotza, ez du atseginik bizien hondamendian; bizirik irauteko egin zituen Hark gauza guztiak; munduko izaki guztiak osasungarri dira; ez da horietan heriotzarako pozoirik, ezta leize zuloaren aginterik ere lur gainean; zuzenbidea hilezkorra baita. Hilezkor egin zuen Jaungoikoak gizakia, eta bere izatearen irudi zuen egin. Deabruaren bekaizkeriaz sartu zen heriotza munduan, harenak direnek sumatuko dute berengan.

Erantzun-salmoa (*Sal* 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12 a eta 13b)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-

a be-re be-ti - ko e-rru - ki - a.

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoak, Jaunari, ‘
eman eskerrak Haren izen santuari.
Une bateko da Haren haserrea,
bizi guztirako Haren on izatea.
Negarra dator arratsaldean, baina poza goizean. R/.

Entzun niri, eta nitaz erruki, Jauna,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra, dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 8, 7. 9. 13-15)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Aberats zarete sinesmenean, hitzean, ezagueran, denerako arduran eta gureganako duzuen maitasunean. Izan zaitezte aberats, eskuzabalean ere. Badakizue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabala: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, Haren behartsu izatetik zuek aberats zaitezten. Hemen darabilgun asmoa ez da besteak lasaitu eta zuek estutzea, guztien berdintasuna baizik.

Gaur egun, zuen ugariak haien eskasia betetzen du; eta egunen batean haien ugariak zuen eskasia beteko du; honela guztion berdintasuna egingo da. Hori dio Liburu Santuak: «Asko bildu zuenak, ez zuen gehiegirik; eta gutxi bildu zuenak, ez zuen gutxieirik».

Aleluia (2 Tm 1, 10b)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia.

Jesu Kristo gure Salbatzaileak hondatu du heriotza,
eta argitara atera bizia, berri onaren bidez. R/.

Ebanjelioa (Mk 5, 21-43)**Homiliarako argibideak**

Indarra dator gaur ere Berarengandik

Polita da entzun dugun ebanjelioko elkarrizketa. «Nork ukitu dizkit soinekoak?» galdetu du Jesusek. Eta bere ikasleetako batek zentzuzko erantzuna ematen dio: denak bultzaka ari dira. Markosek ordea zerbait esanguratsua eransten du: Jesus, indar bat atera zaitzaiola ohartu zen.

Gaur ere Jesusengandik indar salbatzailea dator gugana: bereziki Elizaren bidez, Hitzaren bidez, Sakramentuen bidez.

Zure fedea sendatu zaitu

Fedea izatea da oinarrizkoa. Kristo beti da salbatzaile eta bere indarra beti dago hor, baina ez da era magikoan azaltzen, fedeari ematen zaion erantzun bezala baizik. Hori erakustea du helburu Markos ebanjelariak: guztiak sinets dezatela Kristogan eta gertura daitezela Berarengana konfiantzaz, jakinik baduela sendatzeko eta berpizteko indarra.

Konfiantza gehiago izan behar genuke guztiok Kristoren indar salbatzailearengan, baita kezkatzen gaituzten gaixotasunaren eta heriotzaren aurrean ere. Kristauok badugu heriotzaren zailtasuna argitzen duen itxaropena: «nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da».

Gu sendatzen jarraitzen du Jesusek; guk ez dugu bere soinekoaren ertza ukitu bakarrik egiten, baizik eta jaunartzean Bera hartzen dugu, bera dugu janari. Guri ere esaten digu “altxa zaitetz”: eta badugu zertatik altxa beharra, utzikeriatik, leialtasun faltatik, bekatutik... Jesusengan sinetsi behar dugu itxaropenez, baita itxaropenik ez dagoela dirudienean ere.

Jesusen jokabidea, gainera, ikasbide gertatzen zaigu gure pastoralgintzarako: jendearekiko harrera ona, pedagogia, Jainkoaren salbamenarekin topo egiten laguntzea... nahiz eta hasieran guk nahi bezain ongi prestatuak ez egon. Gugana gerturatzen den jendea bere fede mailagatik epaitu beharrean, lagundu egin behar diogu Jesusengana gerturatzen eta bere fedea sendotzen: datozen egoeran onartuz eta aurrera egiteko bultzada emanaz.

Jainkoak bizia nahi du, ez heriotza

Gaurko ebanjelioko bi gertakizunak oso esanguratsuak dira Jesusek gaixotasunarengan eta heriotzarengan duen indarra azaltzerakoan; gaixotasuna eta heriotza gure historian presente dauden eta geu ere bereziki kezkatzen gaituzten egoerak dira.

Gure mugen eta geure minaren esperientzia den gaixotasunak sarritan, bakardadea, ezina, besteen laguntzaren beharra... ezagutarazten digu. Baita sarritan barruko indar falta, ilusio eta itxaropen zauritzea ere ekartzen digu gaixotasunak.

Baina heriotzak bai kezkatzen gaituela: ulertu ezina, haserrea, etsipena... sor ditzake gugan. Gaurko irakurgetan ez digute

“soluzioa” edo konponbidea ematen, baina argibidea ematen digute fedez begiratzeko, itxaropena berreskuratuzeko.

Jakinduriaren liburuak garbi utzi nahi Jainkoak bizia nahi duela, bizitzeko egin gintuela, baina bekatuaren ondorio dela heriotza.

Ebanjelioak adierazten digu, bekatuak bezala, heriotzak ere baduela irtenbidea Kristogan, barkamena bezala, bizia baitakar Jainkoak. Horretan igaro zuen bere ministeritza osoa Jesusek: barkamenarekin batera osasuna eskainiz; errukia eskaintzearekin batera gaixotasunaren lokarriak hautsiz.

Horretara deitua dago Eliza ere, “bizi emaile” izatera, alegia. Itxaropenaren berri emanek, gaixoentzat osasun izanez, bizitzaren alde eginez edonolako gerra, zuzengabekeria eta zapalketaren aurrean, baita herio-zigorraren, eutanasiaren edo abortuaren erreibindikazioen aurrean ere. Gu beti biziaren alde.

Eukaristian eskaintzen zaigun biziaren dohain neurriagabea osasun bide gertatzen zaigu. Elkartasunera garamatzen “botika”, sendabidea gertatzen da Ogi Santua. Paulok behin eta berriz gogorarazten digun eskuzabaltasuna eta solidaritatea izan daitezela hartzen eta ospatzen dugun dohainaren ondorio egiazko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska diezaiogun Jaunari, senideok, entzun ditzala konfiantzaz eta pozez egiten dizkiogun otoitzak:

- Eska diezaiogun Kristo Jaunari bere bizitza Jaunaren zerbitzura sagaratu duten Eliz zerbitzarien alde eta egiazko Jainkoa gurtzen duten herri guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eska diezaiogun mundua jakinduriatz gobernatzaren duen Jainkoari gu guztion alde, mundua eta natura bereziki arretaz eta esker onez zaindu dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.

—Eska diezaiogun Jainko errukitsuari giza ahultasunaren, gorrotoaren eta enbidiaren sareetan lotuta bizi diren guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.

—Eska diezaiogun Jaunari batak bestearen alde, jar dezagun gure bizitza Beraren eskuetan eta egiogun otoitz uste onez gauza guztien Egile eta Nagusi denari. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, Zure Seme behartsu eta gurutziltzatuaren misterioan aberastu egin gaituzu; entzun gure otoitzak eta egizu Ebanjelioaren poza hots egiten dugunean ez gaitetzela gurutzeaz eta behartsuez lotsatu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Eskaini eta hartu dugun opariak
eman diezagula bizia, Jauna:
maitasunean beti Zurekin bat eginik,
fruitu iraunkorrak ekar ditzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**